

MAÑU AUZOKO EUSKAL TIPOLOGIA BABESTEKO ETA BERE HIRIGINTZAZKO ARAUKORTASUNARI BURUZKO UDAL ARAUTEGIA

Mañu Auzoko hilerria, Bizkaian dagoan euskal tipologizko bakarra dogu, eta baita Euskal Herri guztian geratzen diran gitxienetariko bat ere.

Euskal Herriko lurperatze kultureari buruzko idazlan, azterpen, tesina eta abarrean sartzeko asmotan, bere berezitasunak aztertzeko, sarri izaten dauz, jakitunen bisitaldiak.

1990 urteko udabarian, Eusko Ikaskuntzako Antropologi eta Etnologi Saila, Bermeon ospatu ondoren bere urteko batzarra, Mañuko Hilerria ikusten joan zan. Ikustaldi horrek, garrantzi handia. Izan eban, bai. bertaratu zan jende kopuruagaitik; eta baita, Sail horrek, hilobietako estela horreei eta horrelako hilerriei buruzko azterpena egiteko bakarrik antolatuta eukalako kongresu bat.

Mañu Auzoko Hilerria, pribatua da, Eliza Katolikoarena dan ezkerreko, bere parrokiaren bidez, gaur arte, toki horretan, Udalak inolako parte hartzerik izan ez daukarik.

64 hilobi daukaz, baita hazurtegi bat ere, huskune kopuru zehaztu batez, sendi bakoitzak han izten dauz, euren hilobietako gorpuzkinak.

Hilobiotatik, 43, hareharrizkoak dira, euskal diskoidal hilobiratze eratakoak diralarik, eredu horretariko bat, egurrezkoa da, 17, marmol zuri edo baltzezkoak dira -horreetatik hiru, umeak lurperatzeko dira- eta 3 hilobi lurtean, euren inolako eraikuntza barik.

Azken urteotan, euskal ereduko hilobien ordez, marmolezkoak jartzen ari dirala, ikusi da, beste hilerrien antzeran.

Lur Legearen 178 eta Hirigintzazko Araukortasun Arautegiaren 19o artikuloez ezarritako ekintzak, lege horreen eraginetarako, lizentzi aurreko kontrolpean dagoz.

Kopuru horrek, ez dauka "numerus clausus" izaerarik, orokortasunik handienaz ezarten danez. Horren froga legez, Arautegi horretako 18n . artikulorez arabera, Udalari, beste ekintzei lizentzia eskatzeko, "Egitamu, Arau edo Arautegiek" orokorrean, adierazten dabena.

Horren arabera, Mendiluz udal Hilerrian ezarten dan hirigintzazko araukortasun errejimen bera, Mañu Auzoko Hilerriak betearaztea, oinarritzko helburu dauan Arautegi honen bidez, Hilerri honetan gehiengoz dagozan euskal ereduzko hilobien iraunarazpena lortu nahi da.

Horretarako, Lur Legearen 41 eta Hirigintzazko Egitamu Arautegiaren 127tik 130era, eta 132tik 134ra bitarteko artikuloez ezarritako bidea jarraituko da.

1. ARTIKULOA

Mañu Auzoko Hilerriaren euskal tipologia babesteko eta bere hirigintzazko araukortasuna arautzeko egiten da Arautegi hau, Mendiluz Udal Hilerrian ezarten danari egokituz, eta gure herriaren lurperatze erti kulturalean sustraitutako bere ezaugarri bereziak gorderik.

2. ARTIKULOA

Hilerrian egiten diran ekintza guztiek, Udal lizentzia egokia beharko dabe, Lur Legearen 178 eta Hirigintzazko Araukortasun Arautegiaren 1.18 artikuloak ezarritakoaren arabera.

3. ARTIKULOA

Harrizko disko eratako estelak bakarrik jarri daitezke, okre margotakoa , eta Arautegi honen 1. zenbakidun Eranskinean azaltzen diran neurri eta zehaztasunetakoak.

Hilobien arteko tartea, 25 zentrimetotakoa izan beharko da, alboz. Aurreko eta atzeko lerroketea, kale bakoitzaren lerroketaz zehaztua izango da. Honeetatik, erdikoa edo nagusia, luzetarakoa dalarik, eta baita alboetakoak, beren bidegune gurutzatuek ere, arauetara egokitu beharko dira, guztien artean, zabalera bardina lortu ahal izateko.

4. ARTIKULOA

Hilobi bakoitzean aurkitzen dan gorpu bakoitzari jagokozan datuak, okre margotako xehetuta ez dagoan aurreko harri batetan jarri beharko dira, gainontzekoagaz gorputz bat eginaz, berari lotu beharko dana.

5. ARTIKULOA

Hilobiaren goitik beherako elementu legez, disko eratako estelea jarriko da, zati berezi biz osotuta egongo dalarik: estelea, han agertuko da, hilobiaren etxe jabearen izena, eta diskoa, anagrama, sinbologia edo armarrria bertan grabatuko dalarik.

Goitik beherako elementu hau, okre margotako xehetu gabeko harrizkoa izango da.

6. ARTIKULOA

Zeharretako gorpua, hilobi harria izan daiteke. Ertzetan, hareharria izango dau, erdia, marmola ez dan harriz bete daitekellarik, eta inolako lore edo landarerik bertan landatu barik.

Zeharo galazota geratzen da, hilobian inon, argazkirik jartzea.

7. ARTIKULOA

Arautegi honen ezaugarriak beteten ez daben eta Hilerrian dagozan hilobiek, antolakuntzaz kanpotzat hartuko dira eta eurretan, lan txiki edo konponketatxoak bakarrik egin daitezke.

8. ARTIKULOA

Hilobi barriak egiteko edo ta dagozanen konpontze edo mantenu obrarik egiteko, beharrezkoa izango da, udal lizentzia eskatzea, Hilerriaren jabetzean dauan Erakundeak emon beharrekoetatik kanpo, edo ta, beste erakunde publiko edo pribatuengandik lortu beharrekoen kalte barik.

Erakunde Jabeak, ezin izango dau bere baimenik emon, udal lizentzia dauala egiaztatzen ez dan arte.

9. ARTIKULOA

Lizentzi eskariari, eraiki nahi dan hilobiaren ezaugarriak agertzen dauzan krokisa erantsi beharko da. Ezaugarriok, Arautegi honetan agertzen diranak izan beharko diralarik, idatziko dana, adieraziz, eta baita, estelan agertu beharreko izena, eta diskoan jarriko dan sinbologia.

Era berean, obrea egingo dauan kontrataria nor da, eta aurrekontua ere, azaldu beharko da.

Udal lizentzirik lortu barik, ezin izango da inolaz ere, lanik hasi, beste baimen guztiak izan arren.

10. ARTIKULOA

Gorpu edo gorpuzkinen, eroate, lurperatze, ataratze eta birlurperatze ekintzak, 1.974eko .Uztailaren 20ko, Heriotz Osasun Poliziaren Arautegiak eta honi ezargarriak diran beste legeek jarritakoaren arabera egingo dira.

11. ARTIKULOA

Mañu Auzoko Alkateak, Basozainak eta Udaltzaingoak, Arautegi honen betete zuzena eta zehatza zainduko dabe, beteko ez balitz, jagokon salapena eginaz, baita, hirigintzazko araukortasun arloko Alkatetzeak emondako aginduak. betetea ere.

XEDAPEN OSAGARRIAK

Lehenengoa.- Hilerriaren aurrekaldean kokatzen dan eta gorpuzkinak jartzen diren hazurtegia, oraingotan mantenduko da, Arautegi honen 2n. Eranskinean ezarritakoaren arabera, bere ezaugarririk, edo itxurarik aldatu ezin izango diralarik.

Bigarrena.- Mañu Auzoko Hilerriak daukan arte eta kultur berezitasuna kontutan izanda, udalak, diru-laguntzak eta hobariak jarri daitezke, jagokozan udal zergetan, bai hilobi barriak eraiki, konpondu eta iraunarazteko, eta baita, antolakuntzatik kanpo dagozanak Arautegi honi egokitzeko ere.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra.- Arautegi honetan agertzen ez danari, Mendiluz Udal Hilerriaren Arautegia ezarriko jako.

Bermeon, 1992ko Martxoa